



Itunpeko Irakaskuntzako langileak: **Mobilizazioak lan-sarien murrizketen kontra**

Ekainaren 17an izandako *Gizarte Ekimenezko Ikastetxeen Lan Hitzarmenaren* bilerak ez zuen argitasun gehiago ekarri **Patxi Lopez**-en gobernuak bihar ekainaren 23an onartu nahi duen proiektuaren inguruan.

Ez dago inongo informaziorik ez nola, ez zenbatetan, ez noiztik... Ordainketa eskuordearen bidez uztailleko nominatik has daitezke kenketak. Patronalek bere haserrea azaldu zuten egoera honen aurrean, prentsan azaldu den bezala. Dirudienez, oso kezkatuta daude egoera gauzatuko balitz ezin izango luketelako hitzarmena bete. Legalki ezin dute kuotarik pasa eta galduko duten diru-laguntzarik gabe ezinezkoa dute beren konpromisoak bete. Enpresak eta langileen artean tentsio eta gatazkak ekarriko ditu seguruenez, langileek bere eskubideak defendatuko dituztelako legalki. Arazoa judizializatu egingo da, errekurtsioak, eskaera ekonomikoak, helegiteak...

Honen aurrean, alderdiekin, komunikabideekin eta abar jarri dira harremanetan dekretuko puntu hori gauzatu ez dadin baina oso zaila omen daukate. Txosten juridikoa eginga dute eta errekurrituko dute ilegala delako egin nahi dutena. Ekintza bateratuak proposatu zituzten (departamentuari bai langileei hainbat idatziak egin, Lehendakariarekin bilera bat, Ikastoletako kolektiboarekin elkartu...) Ondoren sindikatuok zer pentsatzen genuen eta zer egiteko prest geunden galdetu ziguten.

Aurreko inforrian azaldu genuen bezala STEE-EILAS sindikatuak Eusko Jaurlaritzako Kontseiluak joan den ekainaren 11ean hartu zuen erabakia salatzen du, eskubide sozialek eta gure lan-baldintzek ez dutelako zergatik ordaindu behar beste batzuk sortu zuten krisia. Orain mobilizatzeko garaia da. Erakunde publikoek aspaldian jo dute bide errazenetik (aurrekontuen murrizketak, murrizketen dekretua, lan-erreforma...) eta erantzun egin behar zaie. Horregatik STEE-EILAS-ek bultzatzen du **ekainaren 29rako dagoen greba orokorraren deialdia**. Horregatik bihar bertan, **ekainaren 22an** ere egongo gara kalean murrizketen kontra. **Delegatuen kontzentrazioa** egingo dugu Plaza Biribilean, goizeko 12etan. Ahal baduzu hurbildu zaitetz gurekin protestatzera!

Murrizketarik ez hezkuntzan!/Murrizketarik ez gure lan baldintzetan!

IRALerako behin behineko zerrendak

Joan den astean izandako bilera batean esan ziguten gaur, ekainaren 21ean, argitaratuko dituztela **Iraleko** behin behineko zerrendak, (uda eta datorren ikasturteko liberazioak). Izandako murrizketa basatien ondorioz urteko aurrekontua ia gastatu da uda bitartean aurreko urtetik hartutako konpromisoekin. Beraz irailan oso jende gutxi liberatuko da eta lehentasuna emango zaie liberatuta daudenei.